

FISIKA eta KIMIKA

2018-2019 ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE-KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGOA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	FISIKA eta KIMIKA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Matematarako kompetentzia Zientziarako kompetentzia Teknologiarako kompetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Begoña de Val Liher Larrinaga Marta Anza	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-2019

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1.- Fisika eta Kimikaren jakintzak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientzia horiek zer harreman duten teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeko.</p> <p>OZK: 1, 2, 3, 4, 5</p> <p>2.- Problemak identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea –bakarka edo taldeka–, gero eta</p>	<p>1 . Formulazioa ez organikoa</p> <p>1.1 . Ea izendatzen eta formulatzen dituen konposatuak IUPACen arauen arabera</p> <p>1.2. Formulazioa gainditzeko %100tik %80 ra ondo egon behar da. (C2,C4)</p> <p>2. Materia eta Erreakzio kimikoen lege klasikoak , Gay Lussacen erlazio bolumetrikoak eta lege ponderalak mikroskopikoki interpretatzea, materiaren teoria atomiko molekularra eta talken eredua erabiliz.</p> <p>2.1. Ea azaltzen dituen prozesu kimikoen lege ponderalak, Daltonen teoria kimikoaren eta Avogadroren hipotesiaren bidez.</p> <p>2.2. Ea interpretatzen dituen substantzia kantitate magnitudearen eta haren unitatearen (molaren) esanahia.</p> <p>2.3. Ea zuzen erabiltzen eta erlazionatzen dituen mol, masa atomiko eta masa molekular kontzeptuak.</p>

<p>autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifikoa saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoan eta testuinguruaren barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei.</p> <p>OZK: 1, 2, 3, 4, 5</p> <p>3.- Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoan komunikatu ahal izateko Fisika eta Kimikarekin lotutako gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz.</p> <p>OZK: 1, 2, 3, 4, 5</p> <p>4.- Azalpenezko eskemak eginez harremanetan jartzea Fisika eta Kimikaren kontzeptu, lege, modelo eta teoria nagusiak eta orokorrak jakintza multzo koherentetan, eta eskema horiek autonomiaz erabiltzea sistema eta aldaketa fisiko eta kimiko nagusiak interpretatzeko –zientzian nahiz eguneroko bizian–, eta zientziaren adar horiek duten garapenaren ikuspegi global bat edukitzea.</p> <p>OZK: 1, 2, 3, 4, 5</p> <p>5.- Fisika eta Kimika etengabe eraikitzen ari direla ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeke, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.</p> <p>OZK: 1, 2, 3, 4, 5</p>	<p>2.4. Ea zehazten duen lagin batean dagoen substantzia kantitatea, substantzia bai egoera solidoan, bai gas egoeran, bai disolbatuta egonik.</p> <p>2.5 Kalkulu guztiak biderkadura faktoreen bidez egingo dute. (C1,C2,C3,C5)</p> <p>3. Disoluzioak , disoluzio baten kontzentrazio neurketa:masa portzentajea,bolumen portzentajea, molaritatea molalitatea eta frakzio molarra. Disoluzioen propietate koligatiboak</p> <p>3.1. Ea gai diren disoluzio baten kontzentrazio neurketen artean erlazionatzea eta unitateak jartzea</p> <p>3.2 Ea gai diren biderkadura faktoreak erabiltzea</p> <p>3.3 Ea kalkulatzten dituzten: Lurrun presioa, Raoulten legea, irakite eta izozte puntuak eta presio osmotikoa. (C3)</p> <p>4. Gasak , gasen legeak (Boyle Mariotte, Charles-Gay Lussac) interpretatzea gasen teoria zinetikoa erabiliz , gas idealen egoera ekuazioa.</p> <p>4.1 Ea azaltzen duten gas baten legea gasen teoria zinetikoa erabiliz</p> <p>4.2 Ea kalkulatzten duten gas baten aldegaia egoera batetik bestera pasatzerakoan.</p> <p>4.3 Ea erabiltzen duten gas idealen egoera ekuazioa</p> <p>4.4 Ea kalkulatzten dituzten gasen nahaste baten prezio totala eta partzialak. (C1,C2,C4,C5)</p> <p>5. Atomoa</p> <p>5.1. Ea identifikatzen dituen oinarrizko partikula subatomikoak eta haien ezaugarriak.</p> <p>5.2. Ea justifikatzen duen eredu atomikoen bilakaera ebidentzia esperimentalen arabera</p> <p>5.3. Ea konparatzen dituen eredu atomiko nagusien ezaugarri nagusiak.</p> <p>5.4. Ea justifikatzen dituen eredu atomikoen izatea eta bilakaera.</p> <p>5.5. Ea osatzen duen atomoen konfigurazio elektronikoa. (C1,C2,C4,C5,C7)</p> <p>6. Sistema Periodikoa eta propietate periodikoak</p> <p>6.1. Ea justifikatzen duen elementuen taula periodikoaren funtsa.</p> <p>6.2. Ea azaltzen duen taula periodikoa egiteak kimikaren garapenean izan zuen garrantzia.</p> <p>6.3. Ea azaltzen dituzten propietate periodikoan aldaketa</p>
--	---

	<p>(C1,C2,C4,C5,C7)</p> <p>7. Loturak : atomikoak, molekula artekoak. Substantzia mota eta substantzien ezaugarriak</p> <p>7.1. Ea zehazten dituen lotura moten ezaugarriak.</p> <p>7.2. Ea erlazionatzen duen substantzia jakin baten lotura mota haren propietate fisikoekin eta kimikoekin.</p> <p>(C1,C2,C4,C5)</p> <p>8. Erreakzio kimikoak: Materiaren osaerari eta erreakzio kimikoei buruzko egoera problematikoak analizatzea eta ebaztea, eta justifikatzea zer nolako garrantzia duen kimikak gizartean, prozesu kimiko industrial nagusiak aztertzen dituen aldetik eta produktu kimikoek bizi kalitatean eragina duten aldetik.</p> <p>8.1. Ea definitzen duen erreakzio abiadura kontzeptua.</p> <p>8.2. Ea egiten dituen erreakzio abiadura baldintzatzen duten faktoreei buruzko hipotesiak.</p> <p>8.3. Ea justifikatzen duen eguneroko bizitzako prozesuetan erreakzio denboran eragina duten faktoreen garrantzia.</p> <p>8.4. Ea ebazten dituen problemak prozesu kimikoetan parte hartzen duten produktuen eta erreaktiboen substantzia kantitateei eta haietan eragina duen energiari buruz.</p> <p>8.5. Ea ebazten dituen erreakzio abiadurari buruzko eta hura baldintzatzen duten faktoreei buruzko problemak.</p> <p>8.6. Ea identifikatzen duen erreakzio bateko erreaktibo mugatzailea.</p> <p>8.7. Ea kalkulatzeko duen erreakzio baten errendimendu orokorra.</p> <p>8.8. Ea erabiltzen duen kimika laborategi bateko oinarritzko tresneria, baita datuak analizatzeko eta hautemateko sistema informatizatuak eta simulazioak ere.</p> <p>8.9. Ea azaltzen dituen egungo kimika industriaren abantailak eta desabantailak</p> <p>8.10. Ea azaltzen dituen Euskal Herriko kimika industria garrantzitsuren bateko oinarritzko prozesu kimikoak.</p> <p>8.11. Ea identifikatzen dituen kimika industriak ingurumenean duen eragina eta hura txikiagotzeko erabiltzen diren prozedurak.</p> <p>(C1,C2,C3)</p> <p>9. Hidrokarburoak: Hidrokarburoen propietate fisikoak eta kimikoak azaltzea eta, karbonoa konbinatzeko aukeretan oinarrituta, azaltzea zer-nolako garrantzia duten hidrokarburoek gizartean eta ekonomian, eta erregai fosilak eskuratzeko eta erabiltzeagatik arazoak analizatzea.</p>
--	--

	<p>9.1. Ea erlazionatzen dituen karbono atomoaren lotura guztiak egitura elektronikorekin.</p> <p>9.2. Ea izendatzen eta formulatzen dituen hidrokarburoak IUPACen arauen arabera.</p> <p>9.3. Ea identifikatzen dituen hidrokarburoen berezko ezaugarriak.</p> <p>9.4. Ea ezagutzen dituen hidrokarburoen lotura bikoitzaren adizio erreakzioak eta errektuntza erreakzioak.</p> <p>9.5. Ea ezagutzen dituen petrolio destilazioaren frakzio nagusiak eta egunerokoan kontsumitzen ditugun produktu asko eskuratzeko aplikazioak.</p> <p>9.6. Ea justifikatzen duen petrokimika industriaren garrantzia, egunerokoan kontsumitzen ditugun produktu asko eskuratzeko aplikazioetan oinarrituta.</p> <p>9.7. Ea argudiatzen duen petrolioaren erabiltzearen eta petrolioaren agortzearen ondorioak argudiatzea.</p> <p>9.8. Ea justifikatzen duen iraunkortasuna lortzeko, kimika organikoaren esparruan ikerketak sustatu beharra.</p> <p>9.9. Ea balioesten duen zientzia problemek gizartean zer-nolako garrantzia duten.</p> <p>9.10. Ea hartzen dituen erabaki arrazoituak eztabaida sortzen duten egoera zientifikoetan.</p> <p>9.11. Ea ezagutzen dituen zientzia ezagutzaren indarra eta mugak.</p> <p>9.12. Ea dakien bitalismoaren oztopoa gainditzeak eta, ondoren, sintesi organikoak garatzeak zer garrantzi handia izan (C1,C4,C5)</p> <p>10. Higidura: Aztertutako hainbat higidura motari buruzko problemak ebaztea eta, horretarako, eguneroko bizitzako zinematika eta dinamika egoera bereziki interesgarriak erabiltzea; eta bide segurtasunari buruzko neurrien beharra justifikatzea.</p> <p>10.1. Ea erabiltzen duen ikuspegi bektoriala.</p> <p>10.2. Ea interpretatzen dituen higidurak azelerazio tangentialaren eta normalaren ikuspegitik.</p> <p>10.3. Ea interpretatzen dituen higidura baten ezaugarriak denboraren arabera posizio, abiadura eta azelerazio grafikoak erabiliz, eta alderantzizkoak.</p> <p>10.4. Ea esperimendu bidez lortzen dituen higidura baten denboraren arabera posizioari buruzko datuak eta, horiek erabiliz, higiduraren ezaugarriak deduzitzen dituen.</p> <p>10.5. Ea erabiltzen duen fisika -laborategi bateko oinarritzko tresneria, baita datuak analizatzeko eta hautemateko sistema informatizatuak eta simulazioak ere.</p>
--	---

	<p>10.6. Ea aztertzen duen abiadurak talka batean duen eragina.</p> <p>10.7. Ea kalkulatzeko duen balaztatze-tartea.</p> <p>10.8. Ea deskribatzen eta analizatzen dituen zirkulazioaren abiadura mugatzea eragiten duten faktore fisikoak (errepidearen egoera, pneumatikoena, etab.)</p> <p>10.9. Ea justifikatzen duen segurtasun uhala erabili beharra.</p> <p>10.10. Ea justifikatzen dituen segurtasun gailuak (karrozeria deformagarriak, kaskoak, etab.).</p> <p>10.11. Ea azaltzen duen zer ekarpen egin zizkion Galileo Galileik zinematikaren garapenari eta metodologia zientifikoaren sorrerari, eta zer zailtasuni aurre egin behar izan zien. (C2,C3,C4,C5)</p> <p>11. Dinamika: Testuinguru errealeko dinamika egoerak azaltzea, identifikatuz zer indarrek duten eragina objektuetan eta sistemetan haien arteko elkarrekintzen ondorioz eta higidura kantitatearen kontserbazio printzipioa aplikatuz.</p> <p>11.1. Ea interpretatzen duen indarraren gaineko ikuskerak newtondarra, gorputzen azelerazioarekiko elkarrekintza eta azelerazioaren arrazoia den aldetik, eta ea senezko ebidentziak eztabaidatzen dituen.</p> <p>11.2. Ea identifikatzen dituen eguneroko egoeretan eragina duten indarrak eta ea azaltzen duen zer ondorio dituzten honako hauei eragiten dietenak: igogailu bati, bertikalki jaurtitako objektu bati, bermatuta edo zintzilik dauden gorputzei, kurba bat egiten duten higikariei, plano inklinatu batean marruskaduraz higitzen direnei....</p> <p>11.3. Ea sistematikoki erabiltzen dituen indar diagramak.</p> <p>11.4. Ea aplikatzen dien higidura kantitatearen kontserbazio printzipioa egoera interesgarriek: noranzko bakarreko talkei, su-armen atzerapenari, suzirien eta lehergailuen propulzioari...</p> <p>11.5. Ea zehazten duen higidura kantitatearen kontserbazio printzipioa zer erreferentzia sistemari aplikatzen zaion.</p> <p>11.6. Ea konparatzen dituen indar kontzeptuaren ikuspegiak: fisika aristoteliko eskolastikoa eta elkarrekintzat hartzen duenarena. (C2,C3,C4,C5)</p> <p>12. Energia: Energia transformazioei buruzko interes teoriko eta praktikoko problemak ebaztea, lan eta bero kontzeptuak eta haien eta energiaren arteko erlazioak aplikatuz eta energiaren kontserbazio eta transformazio printzipioak aplikatuz.</p>
--	---

	<p>12.1. Ea erlazionatzen dituen aldaketetan eragina duten energia, lan eta bero kontzeptuak.</p> <p>12.2. Ea aplikatzen duen energiaren kontserbazio eta transformazio printzipioa.</p> <p>12.3. Ea lotzen duen energiaren degradazioa eta kontserbazioa energia baliabideen erabilerak gizartean sortzen dituen arazoekin.</p> <p>12.4. Ea argudiatzen duen energia baliabideen erabileraz.</p> <p>12.5. Ea analizatzen duen ingurumenaren gaineko eragina.</p> <p>12.6. Ea dakien energia iturri ezberritzagarriak erabiltzeak zer arazo sortzen dituen: besteak beste, hondakinak eta kutsadura. (C1,C2,C3,C4,C5)</p> <p>13 . Ikerketa zientifikoa . Gai eta egoera problematikoak ikerketa zientifikoaren berezko estrategiak eta jarrerak erabiliz eta erakutsiz analizatzea eta ebaztea</p> <p>14.1. Ea identifikatzen dituen ikerketa zientifikoaren bidez erantzun eta ebatz daitezkeen gaiak eta problemak.</p> <p>14.2. Ea proposatzen eta balioesten dituen hipotesi egiaztagarriak.</p> <p>14.3. Ea esperimenduak diseinatzen dituen, eta berriz sor daitezkeen baldintza kontrolatuetan egiten dituen.</p> <p>14.4. Ea analizatzen dituen emaitzak alde kualitatibotik eta kuantitatibotik.</p> <p>14.5. Ea koherentziaz eta argi adierazten dituen ikerketaren emaitzak.</p> <p>14.6. Ea hautatzen eta erabiltzen dituen diseinatutako esperimenduaren araberako esperimendazio tresnak eta teknikak.</p> <p>14.7. Ea betetzen dituen laborategiko segurtasun arauak eta sortzen diren hondakinak kudeatzeko arauak.</p> <p>14.8. Ea parte hartzen duen eta agindutako lanak egiten dituen, banaka eta taldeka.</p> <p>14.9. Ea zorrotza, sortzailea, kritikoa, sistematikoki zalantzatia, malgua eta saiatua den eguneroko lanean (C4,C5)</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. EBALUAZIOA

1. FORMULAZIO EZORGANIKOA	11 ordu
2. MATERIA	3 ordu
3. DISOLUZIOAK ETA GASAK	16 ordu
4. ERREAKZIO KIMIKOAK	13 ordu

2. EBALUAZIOA

5. ATOMOA ETA SISTEMA PERIODIKOA	10 ordu
6. LOTURAK	9 ordu
7. FORMULAZIO ORGANIKOA	13 ordu
8. HIGIDURAREN AZTERKETA	10 ordu

3. EBALUAZIOA

8. HIGIDURAREN AZTERKETA (jarraipena)	9 ordu
ARAZO EGOERA (Jaurtiketa)	
9. DINAMIKA	15 ordu
10. LANA ETA ENERGIA	15 ordu

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Metodologia aktibo eta parte hartzekoa izango da. Edukiak azaltzeko testuliburua izango dugu oinarri.

Teknologia berriak (internet, simulazio informatikoak...) ere, erabiliko dira zenbait gaietan.

Garrantzi handia emango zaio galdera, ariketak eta problemen ebazpenari. Teorian oinarrituz, horien zuzenketari dedikatuko diogu denbora gehiena. Ariketa horiek liburuak zein beste nonbaitetik ekarritakoak izango dira.

Laborategiko saiakuntzak (posiblea bada) egongo dira gai konkretuetan. Teknologia berriak (ordenadorea, kanoia, arbel digitala....) erabiliko dira hainbat simulazioak, irudiak, azalpenak etabarrak ikusteko.

Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

- **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

- **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikokoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.
- **HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.
- **Hezkidetz (Aniztasuana):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.
- **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."
- **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromezua baloratuko da.

BALIABIDEAK

Baliabide analogikoak

- Fotokopiak ariketak egiteko
- Elhuyar aldizkaria edo besteren bat erlazionatutako berriak irakurtzeko
- Laborategiko materiala eta produktu kimikoak

Baliabide digitalak

- Mintegiko Site-a, non azalpenak, simulazioak, irudiak, praktika birtualak...aurki ditzakete
- Argitaletxeko material digitala
- Sareko baliabideak: fisika-kimikako web-guneak, bideoak, aplikazioak,...
- Ordenagailua eta kainioia
- Google APPS classroom, calendar...
- Erabilitako helbide batzuk:

<http://www.aniturri.hezkuntza.net/web/guest/fisika-eta-%20kimika/>

<https://phet.colorado.edu/es/>

<http://www.educaplus.org/>

<https://sites.google.com/site/fisikaetakimika1batx/>

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portafolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>- Gai edo gai multzo bakoitzeko azterketa idatzia.</p>	<p>Ebaluazioaren nota kalkulatzeko, ondorengo atalak kontutan izango dira:</p>

- Laborategi praktikak.
- Eguneroko lana ebaluatuko da.

- Ebaluazioan zehar egiten diren azterketen batez besteko nota.(%90)
- Klaseko eta etxerako lana, txostenak, jarrera, puntueltasuna, portaera...(10%)

Azterketen zuzenketan hainbat puntu kontuan hartuko dira hala nola:

- Ariketa eta galderen garapenaren planteamenduaren eta justifikazioaren zuzentasuna.
- Fisika eta Kimikaren legeen identifikazio eta erabilera zuzena.
- Pausoz pauso eginiko garapenak, eta marrazki eta eskemen erabilera.
- Oinarrizko kontzeptuen azalpena eta haien aplikazio zuzena.
- Unitateen erabilera zuzena.
- Biderkadura faktoreak erabiltzea
- Fisika eta Kimikako hizkuntza egokia eta , oro har, hizkuntza zientifiko egokia erabiltzea.
- Ongi ebaztea
- Unitateak eta emaitzak. Emaitzak koherenteak izan behar dira.

Azterketak unitateka edo materia-multzoka egingo dira.

Formulazio ez-organikoan azterketa gaitzeko % 80 ondo egon beharko du eta ezinbestekoa da gaitzuta izatea irakasgaia gaitzeko.

Formulazio organikoan azterketa gaitzeko % 80 ondo egon behar du baina media egiteko ateratako nota erabiliko da.

Azterketen batez bestekoa egin ahal izateko nota minimoa 3,5 ekoa izan behar da.

Ohiko deialdiaren nota gaitzuta hiru ebaluaketan batez besteko nota izango da.

Ikasle bat, ikasturte osoko saioen (128) %20ra (26) justifikaziorik gabe azaltzen ez bada, ebaluazio jarraitua izateko eskubidea galduko du, eta ondorioz, irakasgaia ezohiko frogan gaitzuta beharko du.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

1. Ebaluazio bakoitzaren ostean berreskurapen azterketa egingo da gainditu ahal izateko. Azterketa honetan ebaluazioko eduki guztiak sartzen dira.
2. Ohiko deialdian berriro egingo da berreskurapen azterketa non ikasle bakoitzak gainditu ez dituen ebaluazioak berreskuratzeko aukera izango du.
3. Ez gai bada ohiko deialdian, ez-ohikoan ikasgai osoko azterketa egingo da.

Ezohiko deialdiaren ostean irakasgaia gainditu gabe geratzen bada, datorren ikasturtean gainditu beharko da, horretarako espresuki egingo diren deialdietako batean aurkeztuz eta egongo den azterketa gaindituz.

Deialdiak ondokoak izango dira: urriko lehen astean, ikasturte bukaerako ohiko deialdia eta ekaineko ezohiko deialdia.

Berreskuratze hori laguntzeko, ikasleari bestelako lanak emango zaizkio, eta ikaslearen jarraipena egingo da.

OHARRAK / OBSERVACIONES

--